

Asligarraga

Atzo ostiralian gure txadonan kistartu-
zan Miner'tar Bingen abertzale zifarean
alabatxo; ezarri zitzayon "Miren Sorne"
izen pollita; besoetan eduki zuten aiton-
izebak, Goikoetxea'tar Kepa ta Miner'tar
Elixabetek. Zori onak opa dizkiet guzi
oyei.

* * *

Loriak.—Miren-illa dala-ta txadonkixun
pollitak dagizkigu egun oro, batez-ere
lgande ta jayetan itzeikizun eta abesti
entzungarriekin Miren-Ama goresten de-
gu; baña zoritxarrez gizon gutxi ikusten
da txadonkizun pollit oyetan; badirudi
orren urte ederra eskeintzen digun Jaun-
goikuarentzat oroitu nai ez gerala.

Uzta (cosecha).—Urte ona Urtzi'k es-
keintzen digula esan det eta ala da, ze-
ren sagarrak inoiz ez bezelako loria izan
dute, ederra ta usaitsua, geyenak sartu-
xiak dira ta dakuskunez lore asko jarri
dira ernai; ezpa'degu arri-erasorik, aur-
ten urte txoragarriren bat ditxarogu; bai
Kirikiño, automobilla zeregandutakoan
erri au ikertzeke geldi etzaitez, ba gaso-
lina aitzen bazaizu ez dezu erostera juan
biarrik, sagarduak indartsuak diraken ez-
kero beronekin onaztarriya bezin bizi era-
billiko dezu. Agur Kirikiño ta udagoye-
na arte. (1)

Txadon-zaya.

(1) ¿Zer ba? ¿Mañuak artzera ala?
Gixona, orrexek agur orrek ikaratu nau
zerbait.—Kirikiño.